



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE JUSTICIA

DIRECCIÓN GENERAL
DE SEGURIDAD JURÍDICA
Y FE PÚBLICA

EUROPAR BATASUNEN ZENBAIT AGIRI PUBLIKO LEGEZTATZEKO EDO APOSTILLA ERANSTEKO SALBUESPENA

EUOPAR BATASUNEN AGIRI PUBLIKO LEGEZTATZEKO EDO APOSTILLA ERANSTEKO SALBUESPENA

2016ko uztailaren 6ko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/1191 Erregelamenduak herritarren zirkulazio askea errazten du, Europar Batasunean zenbait agiri publiko aurkezteko baldintzak sinplifikatuz, eta (EB) 1024/2012 Erregelamendua aldatzen du. 2019ko otsailaren 16tik, estatu-kide guztiei aplikatzen zaie, eta estatu-kideen zenbait agiriren zirkulazioa arintzea du helburu.

ZER NOBEDADE DAKARTZA ARAUAK?

Erregelamenduak bi nobedade ditu:

1. Beheko egitateetako batekin lotutako agiri publikoen kasuan, estatu-kide batek igorri dituenan, ez dira legezlatu behar, ezta antzeko izapiderik egin ere (hala nola, apostilla eranstea) beste estatu-kide bateko autoritateei aurkeztu ahal izateko:
 - a) Jaiotza
 - b) Heriotza
 - c) Pertsona bat bizirik egotea
 - d) Izena
 - e) Ezkontza, ezkontzeko gaitasuna eta egoera zibila barne
 - f) Dibortzioa, banaketa judiziala edo ezkontza baliogabetzea
 - g) Izatezko bikote erregistratua, izatezko bikotetzat erregistratzeko gaitasuna eta izatezko bikote erregistratu bateko kide izatea barne
 - h) Izatezko bikotea erregistrotik kentzea, banaketa judiziala edo izatezko bikote erregistratua baliogabetzea

- i) Seme-alabatasuna edo adopzioa
- j) Helbidea edo egoitza
- k) Nazionalitatea
- l) Aurrekarik penalik ez izatea
- m) Sufragio aktiboa eta pasiboa Europar Parlamentuko hauteskundeetan edo beste estatu-kide bateko udalerrietako hauteskundeetan

Hala ere, kontuan hartu behar da Erregelamendua EZ zaiela aplikatzen egoerari zibilari buruz Egoera Zibilaren Nazioarteko Batzordearen bestelako Hitzarmen batzuen arabera igorritako agiriei.

2. Aurreko atalean aipatutako egitateen kasuan, inprimaki estandar eleanitza eska daiteke. Inprimaki horretan, aurkeztu nahi den agiriaren edukia dagokion estatu-kideko hizkuntzara itzulita egongo da.

Dena dela, azpimarratu behar da aipatutako inprimaki estandar eleanitzak EZ duela balio juridikorik, bakarrik aurkeztuz gero, eta, beraz, itzultzen duen dokumentu publikoarekin batera aurkeztu behar dela beti.

HERRITARREK BESTE SALBUESPEN SISTEMA BATZUEI HEL DIEZAIKETE ORAINDIK ERE?

BAI, nahi badute, dokumentu publikoak legeztatze edo antzeko izapideren bat egiteko beharretik salbuesten dituen bestelako sistemei hel diezaieke herritarrek, estatu-kideetan aplikatzen badira, betiere. Hain zuzen ere, Erregelamendu hau tresna bereizia eta autonomoa da, eta Hagako Apostillaren Hitzarmenetik kanpo dago. Hortaz, estatu-kideek apostilla erantsita daramaten agiriak onartzen jarraitu behar dute.

ZINPEKO ITZULPENA AURKEZTEN JARRAI DAITEKE INPRIMAKI ESTANDAR ELEANITZAREN ORDEZ?

BAI, estatu-kide guztiek onartuko dituzte zinpeko itzulpenak, baldin eta estatu-kideetako baten zuzenbidearen arabera horretarako gaituta dagoen pertsona batek egin baditu.

EDITA: Ministerio de Justicia
Secretaría General Técnica

NIPO (papel): 051-21-018-8

NIPO (pdf): 051-21-022-7

DEPÓSITO LEGAL: M-5408-2021

MAQUETACIÓN: Subdirección General de Documentación
y Publicaciones



Ministerio
de Justicia



Registro Civil